

# Aroztegia



**JON ALONSO**  
ITZULTZAILEA

**E**uskadin bada lege bat (2016koa, uste dut) EAEko udal guztiei Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko betebeharra ezartzen diena, proiektu berri bati ekitean. Lege hori garatzen duen dekretu batek, bere aldetik, zera esaten du hitzez hitz: “Udalerriek ondoren zerrendatzen diren plan eta proiektuen hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko dute, bai eta horien funtsezko aldaketenak ere, baldin eta euskararen erabileran eragina izango badute”. Ebaluatu beharreko plan eta proiektu horien artean, proiektu turistikoa daude, noski, besteak beste.

Nafarroan ez dago halako legerik; hortaz, Lekarozko biztanleria bikoiztuko duen Aroztegia proiektuak zer eragin linguistikoa edukiko duen Lekarozen –eta are Baztan osoan–, ez da ebaluatuko. Ezta beharrik ere, denok dakigu-eta eragina birrintzailea izango dela (euskararentzat, jakina).

Ez da erraz ulertzen. EAJk babestu nahi ditu herri txikietako hizkuntza usadioak (EAEn), baina Geroa Baik ez

EAJk babestu nahi  
ditu herri txikietako  
hizkuntza usadioak  
(EAEn), baina Geroa Baik  
ez du (Nafarroan) halako  
irizpiderik erabiltzeko  
beharrik ikusten.  
Zer dela-eta?

du (Nafarroan) halako irizpiderik erabiltzeko beharrik ikusten. Zer dela-eta? EAJ sozioberdeagoa da bere burua halakotzat duen Geroa Bai baino? EAJ-erentzat Nafarroa eta Iparralde nolabaiteko “atzeko patioa” baino ez dira, non euskal metropoliko eliteek atseden har dezaten edozer egitea libre baita? Birtartean, Etchebest Etxalde elkartekoak,

prentsan, maiatzaren 3an: “Guk eza-gutzen ez dugun mundu dirudun bat heldu da Ipar Euskal Herrira. Diru anitz dute eta, aldiz, bertakoek ez dute mozkin gehiago eta ezin dute hemen gelditu”. Hori bera da garapen eredu posible bakarra Baztanen?

Alferrik dira politikariei maribistarako hainbeste gustatzen zaizkien termino dotore horiek (“lurraldearen antolamendua”, “garapen jasangarria”, “eskualdeen arteko oreka”, “udal autonomia”...). Behin berriro ongi agerian geratu da Nafarroa elite ekonomiko baten Iruñetik zuzentzen duen kortijo bat dela. “Aldaketa” bakarra, orain beste batzuek lortu dutela sudurra sartzea lehen UPN eta PSNrena baino ez zen barrutian.

Norbait autobusak antolatu beharko lituzke, balizko etxe berrien balizko erosleak etor daitezten ikustera bertatik bertara etxeko sala eskobatuko dizkien lamiak eta kafesnea zerbitzatuko dien basajaunak, ea Dolores Redondok pintatu irudiarekin bat datozen. ●

**OPARITU ARGIA**  
ZAINDU NAHI DUZUN HORRI

**ARGIA** Puska dezagun izotza